IRAGARKIAK

Obra, zerbitzu eta horniduren enkanteak eta lehiaketak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3491

EBAZPENA, 2011ko apirilaren 15ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zerbitzu zuzendariarena, 2011ko ekitaldirako Nekazaritzako Kontabilitate Argibideetarako Euskal Sarerako (NKAES) kontabilitate-bulegoak hautatzeko lehiaketa publikoaren deialdia egiten duena.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zerbitzu zuzendariaren 2011ko otsailaren 21eko Ebazpenaren bidez, 2011ko ekitaldian kontabilitate-bulegoak hautatzeko lehiaketa publikoaren deialdia egin zen.

Ebazpen hori 2011ko martxoaren 22ko EHAAn argitaratu zen, 56. zenbakian.

Eskabideak aurkezteko epean, honako enpresa hauek aurkeztu ziren:

- Agricultores y Ganaderos de Álava, Sociedad Cooperativa, «AGA, S Coop.»; IFK zk.: F-01031277, eta, Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Erregistroko inskripzio-zenbakia: 85.2.068.

- Lorra, Sdad. Coop., IFK zk.: F-48212880, eta, Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Erregistroko inskripzio-zenbakia: 86.4.217.

- Sergal, S. Coop., IFK zk.: F-01375948, eta, Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Erregistroko inskripzio-zenbakia: 2004.0.082.

- Abelur, Koop. E., IFK zk.: F-20835609, eta, Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Erregistroko inskripzio-zenbakia: 2007.0.003.

- Lurgintza, Koop. E., IFK zk.: F-20035846, eta, Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Erregistroko inskripzio-zenbakia: 88.3.482.

Eskabideak aztertu ondoren egiaztatu zen deialdiaren bigarren puntuan eskatutako baldintzak betetzen zirela. Izan ere, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan izena emanda izateaz gain, lana behar bezala gauzatzeko elementu pertsonalak eta materialak dituzten erakundeak dira, nekazari edo abeltzain kolaboratzaileen idatzizko konpromisoa aurkeztu dute, bertan adieraziz ados daudela kontabilitate-bulego horrek beren ustiategien emaitza teknikoak eta kontabilitateari dagozkionak aztertzeko, eta gutxienez hirurogei nekazari edo abeltzainen adostasuna lortu dutela beren ustiategien kontabilitatea kudeatzeko.

Horiek horrela, Nekazaritzako Kontabilitate Argibideetarako Sarea (RICAV/NKAES) sortu zuen 1965eko ekainaren 15eko Kontseiluaren 79/65/EE Erregelamenduaren 1.2 artikuluan (5.2 eta 6.1.c artikuluei dagokienean) zehaztutakoa kontuan hartu da (1965-06-23ko EBAO, 109. zk.).

Ikusi da Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 1985eko irailaren 25eko Aginduaren 8. artikuluak zer dioen (agindu horren bidez ezarri zen Nekazaritzako Kontabilitate Argibidetarako Euskal Sarea edo RICAV/NKAES). Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 2011ko ekitaldian, Nekazaritzako Kontabilitate Argibidetarako Euskal Sarerako, nekazaritza eta abeltzaintza ustiategien informazioa eta kontabilitateko emaitzak lortzeko laguntza teknikoko lanak egiteko kontabilitate-bulego hauek hautatzea:

- Aga, S. Coop.

- Lorra, S. Coop.

- Sergal, S. Coop.

- Abelur, Koop. E. eta

- Lurgintza, Koop. E.

Bigarrena.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, denek eta bereziki nekazari eta abeltzain titularrek horren berri izan dezaten, zehaztutako kontabilitate-bulegoen artean bat hautatzeko.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluekin bat etorriz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 15a.

Zerbitzu zuzendaria,
JOSÉ LUIS BARRENA MARTÍNEZ.